

# EZAGUTU ONDO ZURE AHALMENAK

LABORAL Kutxan, bitzta erraztuko dizuten **irtenbide erabilgarrien** berri ematea atsegin dugu.

Horregatik, **PREBENTZIOZKO AHALORDEAK** zer diren azaldu nahi dizugu gaur.



## Zer dira PREBENTZIOZKO AHALORDEAK?

Izenak berak dioenez, konfiantzazko pertsona bati edo gehiagori **ahaloreak** ematea da, zenbait une eta egoeratan gure ordezkari izan daitezen, gure borondatea errespetatuz eta betez.

Hala, ahaldu izendatutako konfiantzazko pertsonak —edo pertsonak— **gure ondasunak** (banku-kontuak, jabetzak) **kudeatzeko** ahalmena izango du, edo **gure ordezkaritzan** jardungo du, gure osasunari eta ongizateari buruzko **erabakiak hartzeko orduan**.

Prebentziozko Ahalordeak idaztean **ez da inongo ondasunen titulartasunik eskualdatzen**, erabakiak hartzeko ahalmena ematen da, besterik ez.

## Nola eta non egiten da?

Dokumentua notarioaren aurrean idatzi eta formalizatzen da, borondatez eta guk nahi dugun edukiarekin.

Adibidez, **persona bakarra izenda daiteke alderdi pertsonalen eta ondare-alderdien arduradun, edo bi izenda daitezke, arlo bakoitzerako bat.**

Gainera, Prebentziozko Ahalordeak **itzulgarriak dira erabat**, eta edozein unetan **baliogabetu edo alda** daitezke notarioaren aurrean.



**Profesionalen aholkua, hala nola notarioena, beti da gomendagarria**, baina Prebentziozko Ahalordeak idazteko orduan **zurea da azken hitza**.

## Zer unetatik aurrera eskuratzen du ahalduak guk eman diogun ahalmena?

**Guk erabakiko dugu** zer unetatik aurrera jardungo duen gure izenean ahaldu izendatutako pertsonak (edo pertsonak):

- **Ahalordeak notario aurrean sinatzen ditugun unetik aurrera.**
- Gaixotasun edo istripu baten ondorioz **geure kabuz moldatzeko gaitasuna galtzen dugun unetik aurrera bakarrik.**

## PREBENTZIOZKO AHALORDEAK idazteko 3 arrazoi

1. Ezgaitze-deklarazio judizialaren prozesu **luze eta garestia** saihestu dezake.
2. **Erabakiak gure konfiantzazko pertsona batek edo batzuek hartuko dituztela bermatzen du**, eta ez epaile batek izendatutako norbaitek.
3. **Senitartekoei eta hurbilekoei izapideak eta negoziak aurrera eramatearen zegoiazkoen die, berez zailak diren unetan.**



Prebentziozko Ahalordeak izapidetzea **merkeagoa da** ezgaitze-deklarazio judizialaren prozesua baino.

## GOGOAN IZAN

Prebentziozko Ahalordeak baliagarriak dira, izapideak **bizkortzen dituztelako eta erabakiak zuk aukeratutako pertsonak edo pertsonak hartzen dituztelako** zure borondatearen arabera.

Informazio gehiago nahi baduzu, hurbilen duzun notariotzan hitzordua eskatzea gomendatzen dizugu.